

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko apirilaren 27tik maiatzaren 4rako astea**

## I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

## II.- XEDAPEN OROKORRAK:

### E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

**2020/04/27**

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA.- Nekazaritzako makineria.-** 448/2020 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, nekazaritzako makineria bereizi eta erregistratzeari buruzkoa. [2020-4666 xedapena - 27 orri.](#)
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA.- Babes erradiologikoa.-** 451/2020 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, iturri erradioaktibo zurtzak kontrolatu eta berreskuratzeari buruzkoa. [2020-4667 xedapena - 12 orri.](#)

**2020/04/28**

- **OSASUN MINISTERIOA – Alarma egoera – Oinarrizko zerbitzuak.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 24koa, Osasun Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez aldatzen den zenbait osasun zentro, zerbitzu eta establezimendu oinarrizko zerbitzu deklaratzan dituen martxoaren 31ko SND/310/2020 Aginduen eranskina. [2020-4689 xedapena - 2 orri.](#)
- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Gizarte Segurantzak.-** ISM/371/2020 Agindua, apirilaren 24koa, zeinaren bidez garatzen den gizartearen eta ekonomiaren esparruan COVID-19ari aurre egiteko premiazko neurri osagarriak hartzea xedatzen duen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-dekretua. [2020-4690 xedapena - 2 orri.](#)
- **LURRALDE POLITIKAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA.- Hitzarmenak.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 16koa, Estatuak Lurraldean duen Administrazio Orokorraren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen den Espainiako Abokatutzaren Batzorde Nagusiarekin sinatutako hitzarmena, bide elektronikoaren bitartez izapide administratiboak eta kudeaketa dokumentala egiteari buruzkoa. [2020-4698 xedapena - 7 orri.](#)

## 2020/04/29

- **ESTATUKO BURUZAGITZA – Alarma egoera. Justizia Administrazioa.-** 16/2020 Errege Lege-dekretua, apirilaren 28koa, Justizia Administrazioan COVID-19ari aurre egiteko prozesu eta antolakuntzako neurriei buruzkoa. [2020-4705 xedapena - 23 orri.](#)
- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Itsas garraioa.-** TMA/374/2020 Agindua, apirilaren 28koa, zeinaren bidez ezartzen den ontzietako tostartekoek euren egoera egiaztatzeko dokumentazioa, horien zirkulazioa errazteko, COVID-19ak eragindako osasun-krisia dela-eta itsas garraioko zerbitzuak ematen direla bermatzeko xedez. [2020-4706 xedapena - 3 orri.](#)
- **INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO MINISTERIOA.- Metrologia.-** 493/2020 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, zeinaren bidez aldatzen den legezko neurketa-unitateak ezartzen dituen abenduaren 30eko 2032/2009 Errege Dekretua. [2020-4707 xedapena - 5 orri.](#)
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA.- Kanpo merkataritza.-** 494/2020 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, zeinaren bidez aldatzen den babes materialaren, bestelako materialaren eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologien kanpo merkataritza kontrolatzeko Araudia onesten duen abuztuaren 1eko 679/2014 Errege Dekretua. [2020-4708 xedapena - 6 orri.](#)

## 2020/04/30

- **GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA.- Administrazio-epeak. Prozedura elektronikoak.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 29koa, Administrazio Digitalaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez onesten den gako hitzartuaren bidezko edo Administrazioek baliozkotzat jotzen duten beste edozein sistemaren bidezko identifikazioko eta sinadura elektronikoko sistema berriak baimentzen dituzten administrazio prozedurekin jarraitzea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 9.2 c) eta 10.2 c) artikuluei dagokienez, COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko asmoz alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria aplikatuta. [2020-4733 xedapena - 2 orri.](#)

**2020/05/01**

- **GORTE NAGUSIAK.**

- **Alarma egoera. Zerga neurriak.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 29koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila zenbait zerga aitorten eta autolikidazio aurkeztu eta ordaintzeko epea luzatzen duen apirilaren 14ko 14/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. [2020-4757 xedapena - 1 orri.](#)
- **Alarma egoera. Genero indarkeria.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 29koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila genero indarkeriaren biktimen babes eta laguntzarekin lotutako premiazko neurriei buruzko martxoaren 31ko 12/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. [2020-4758 xedapena - 1 orri.](#)

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRU AGENDAREN MINISTERIOA.**

- **Alarma egoera. Laguntzak.-** TMA/378/2020 Agindua, apirilaren 30ekoa, zeinaren bidez zehazten diren COVID-19ari aurre egiteko gizarte eta ekonomia arloko premiazko neurri osagarriak onesten dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-dekretuko 9. artikuluan ezarritako finantzaketa-laguntza iragankorrak eskura ditzaketen ohiko etxebizitzaren errentarien irizpideak eta betekizunak. [2020-4759 xedapena - 12 orri.](#)
- **Alarma egoera. Trenbideko langileak.-** TMA/379/2020 Agindua, apirilaren 30ekoa, zeinaren bidez irizpideak ezartzen diren COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua betetzeko trenbideko langileen prestakuntza-jardueretan, COVID-19ak eragindako osasun-krisiko egoeran. [2020-4760 xedapena - 2 orri.](#)

- **LURRALDE POLITIKA ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA.-  
Antolamendua.-**

- 495/2020 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, zeinaren bidez garatzen den Kontsumo Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa eta aldatzen den ministerio sailen oinarritzko egitura organikoa ezartzen duen urtarrilaren 28ko 139/2020 Errege Dekretua. [2020-4761 xedapena - 15 págs.](#)

- 496/2020 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, zeinaren bidez honako hauek aldatzen diren: 1314/1984 Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren egitura eta eskumenak arautzen dituen, eta 2583/1996 Errege Dekretua, abenduaren 13koa, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren egitura organikoari eta eginkizunei buruzkoa eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia partzialki aldatzen duena. [2020-4762 xedapena - 5 orri.](#)
- 497/2020 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, Inklusioaren, Gizarte Segurantzaren eta Migrazioen Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duena. [2020-4763 xedapena - 21 orri](#)
- 498/2020 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duena. [2020-4764 xedapena - 16 orri.](#)
- 499/2020 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, zeinaren bidez garatzen den Lanaren eta Ekonomia Sozialaren Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa, eta aldatzen den 1052/2015 Errege Dekretua, azaroaren 20koa, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako atzerriko kontseilaritzen egitura ezarri eta haien antolamendua, eginkizunak eta lanpostuak betetzea arautzen dituen. [2020-4765 xedapena - 18 orri.](#)

## • OSASUN MINISTERIOA

- Alarma egoera. Jarduera fisikoa.- SND/380/2020 Agindua, apirilaren 30ekoa, COVID-19ak eragin duen osasun krisiko egoeran, jarduera fisiko ez-profesionala egiteko baldintzei buruzkoa. [2020-4767 xedapena - 5 orri.](#)
- Alarma egoera. Nekazaritza jarduera.-SND/381/2020 Agindua, apirilaren 30ekoa, nekazaritza ekoizpenak zaintzeko eta biltzeko jarduera ez profesionalak egiteko baimena ematen duena. [2020-4768 xedapena - 2 orri.](#)

**[2020/05/02](#)**

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Bermeak.-** Ebazpena, 2020ko maiatzaren 1ekoa, Garraioaren, Mugikortasunaren eta Hiri Agendaren Estatuko Idazkaritza Nagusiarena, "COVID-19 errentamendu-abalen lerroan" Estatuak errentariei emandako gastu eta interesen abalak eta dirulaguntza kudeatzeko Kreditu Ofizialeko Institutuarekin sinatutako hitzarmena argitaratzen duena. [2020-4786 xedapena - 19 orri.](#)

## 2020/05/03

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Mugikortasuna.-** TMA/384/2020 Agindua, maiatzaren 3koa, garraiobideetan maskarak erabiltzeko jarraibideak ematen eta mugikortasun segurua bermatzeko baldintzak ezartzen dituen, normaltasun berri baterako trantsizio-planari jarraikiz. [2020-4789 xedapena - 3 orri.](#)
- **OSASUN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Premiazko neurriak.**
  - SND/385/2020 Agindua, maiatzaren 2koa, honako agindu hau aldatzen duena: SND/340/2020 Agindua, apirilaren 12koa, dauden eraikinetan esku hartzeko lanekin lotutako zenbait jardura bertan behera uzten dituen, lanekin zerikusirik ez duen jendea COVID-19arekin kutsatzeko arriskua dagoen kasuetan. [2020-4790 xedapena - 2 orri.](#)
  - SND/386/2020 Agindua, maiatzaren 3koa, zeinaren bidez malgutu egiten diren zenbait muga sozial eta zehazten diren txikizkako merkataritza eta zerbitzuak emateko jardura gauzatzeko baldintzak, bai eta ostalaritza eta jatetxeen zerbitzuak ere, COVID-19ak eragindako osasun krisiak gutxien eragin duen lurraldeetan. [2020-4791 xedapena - 10 orri.](#)
  - SND/387/2020 Agindua, maiatzaren 3koa, normaltasun berrirako trantsiziorako, autonomia erkidegoekin eta Ceuta eta Melillako hiriekin kobernautza prozesua arautzen duena. [2020-4792 xedapena - 5 orri.](#)
  - SND/388/2020 Agindua, maiatzaren 3koa, zenbait denda eta zerbitzu eta artxiboak jendeari irekitzeko eta kirol profesionala eta federatua praktikatzeko baldintzak ezartzen dituen. [2020-4793 xedapena - 10 orri.](#)

## 2020/05/04

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.**
  - Ebazpena, 2020ko apirilaren 30ekoa, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarena, zeinaren bidez garatzen den COVID-19ari aurre egiteko arlo sozial eta ekonomikoko premia- neurri osagarriak hartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-dekretuan araututako Gizarte Segurantzaren Araubide Berezian Etxeko Langileen Sistema Berezian dauden pertsonentzat jardura faltagatiko ezohiko subsidiorako eskaera izapidetzeko prozedura. [2020-4801 xedapena - 6 orri.](#)

- Ebazpena, 2020ko maiatzaren 1ekoa, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarena, zeinaren bidez ezartzen den COVID-19ari aurre egiteko arlo sozial eta ekonomikoko premiazko neurri osagarriak hartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-dekretuaren 33. artikuluan araututako langabeziagatiko salbuespenezko subsidioaren eskaerak izapidetzeko prozedura. [2020-4802 xedapena - 2 orri.](#)

## **E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)**

### **2020/04/27**

- **OSASUN SAILA.-** AGINDUA, 2020ko apirilaren 17koa, Osasuneko sailburuarena, 2020ko martxoaren 18ko Agindua aldatzen duena. Agindu horren bidez, zuzendaritza-batzorde bat sortzen da Euskal Autonomia Erkidegoan koronabirusak (Covid-19) eragindako krisialdiari aurre egiteko dauden baliabide sanitarioak, kudeaketakoak eta boluntariotzakoak kudeatzeko eta koordinatzeko.- [1906 xedapena - 2 orri.](#)
- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA.-** AGINDUA, 2020ko apirilaren 15ekoa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira arrantza-sektoreari laguntzak emateko aldi baterako araubidearen oinarriak, eta deialdia egiten baita. Laguntza horien xedea arrantza-jardueraren lehiakortasunari eustea da, eta Covid-19ak eragindako alarmaren ondoriozko aldi baterako laguntza-esparruaren babesean ematen dira.- [1908 xedapena - 11 orri.](#)

### **2020/04/29**

- **OSASUN SAILA AGINDU,** 2020ko apirilaren 24koa, Osasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden diagnostiko klinikoko osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduek Covid-19a atzemateko proba diagnostikoak nola egin eta emaitzak nola jakinarazi zehazten duena. [1910 xedapena - 5 orri.](#)
- **ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA.-** HUTS-ZUZENKETA, honako ebazpen honena: Ebazpena, 2020ko apirilaren 20koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez ebazpen honen huts-zuzenketa egiten baita: Ebazpena, 2020ko apirilaren 8koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, aparteko dirulaguntzetarako deialdi bat argitaratzeko dena; dirulaguntzen hartzaileak norberaren konturako langileak edo langile autonomoak izango dira, zehazki beren jarduerak etenda dituztenak Covid-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma-egoera dela eta. [1911 xedapena - 1 orri.](#)

## 2020/04/30

- **GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA** 55/2020 DEKRETUA, apirilaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoi buruzko Dekretua bigarrenenez aldatzen duena. [1913 xedapena – 10 orri.](#)

## A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

## 2020/04/27

- **FORU AGINDUAK (NEKAZARITZA SAILA).**– 103/2020 Foru Agindua, apirilaren 24koa Onespena ematen duena harrapakarien kalte eta kontroletarako administrazio baimenei loturiko ezohiko neurriei, COVID-19aren ondoriozko alarma egoeraren deklarazioa indarrean den bitarteko. [1062 xedapena – 2 orri.](#)

## 2020/05/04

- **ARABAKO FORU ARAUAK.**– 4/2020 Foru Araua, apirilaren 22koa, martxoaren 24ko 3/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena, onesteko Arabako zerga araudia egokitzea Estatuak hainbat zergatan egindako aldaketetara. [1051 xedapena – 1 orri.](#)

## B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

## 2020/04/29

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.**– 3/2020 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, apirilaren 28koa, COVID-19 osasun-larrialdiaren ondoriozko ezohiko tributu-neurri osagarriei buruzkoa. [2020- 80 \(I-289\) xedapena – 9 orri.](#)

## G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

## 2020/04/27

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.**–
  - 5/2020 Foru Dekretua, apirilaren 21ekoa, zeinaren bidez onesten baita Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua. [1877 xedapena – 66 orri.](#)

- 162/2020 Foru Agindua, apirilaren 22koa, zeinaren bidez onesten baita COVID-19aren aurkako borrokan laguntzeko Osakidetzaren alde egiten diren emari eta dohaintzen zerga tratamenduari aplikatu beharreko interpretazioa. [1885 xedapena – 2 orri.](#)
- 163/2020 Foru Agindua, apirilaren 22koa, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 3ko 137/2020 Foru Agindua, pertsona fisikoei Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga arloko ordezkarien erroldan ordezkaritza berriak inskribatzea ahalbidetzen dien ezohiko sistema bat arautzen duena, Covid-19ak sortutako aparteko egoerak irauten duen bitartean. [1893 xedapena – 2 orri.](#)
- **GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA.-** 288/2020 Foru Agindua, martxoaren 30ekoa, zeinaren bidez giza baliabideen arloan neurri bereziak ezartzen diren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumeneko gizarte zerbitzuen sistemaren funtzionamendu egokia eta zerbitzu horien jarraipena bermatzeko. [1880 xedapena - 3 orri.](#)

## 2020/04/28

- **DIPUTATU NAGUSIA.-** 1/2020 Foru Araua, apirilaren 24koa, Europako zuzentarauen transposizioarekin lotutako zerga aldaketa batzuk ekarri eta beste zenbait aldaketa tekniko sartzen dituena. [1918 xedapena – 39 orri.](#)

## E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

## 2020/04/27

- **ERABAKIAK.** 2020 / apirilaren 24ko 2020/574 Batzordearen Exekuzio Erabakia (EB) 2020/47 betearazpen-erabakia (EB) aldatzen duena, hegazti gripearen aurkako babes-neurriei buruzkoa H5N8 subtipoaren patogenotasun altua estatu kide batzuetan [C (2020) 2732 zenbakiarekin jakinarazi da] ( <sup>1</sup> ).- [L 132 - 23](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: [serviciosjuridicos@mutualia.es](mailto:serviciosjuridicos@mutualia.es)

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - 48009 BILBAO